

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko urriaren 31tik azaroaren 6rako astea**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/11/04

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. - Lan Hitzarmen kolektiboak.**
- Ebazpena, 2020ko urriaren 26koa, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, publizitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren berrikuspen-akta eta soldata-taula erregistratu eta argitaratzen dituen. **2020-13574 xedapena - 3 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/02

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.**
 - **Enplegu politika.** – Ebazpena, 2020ko urriaren 26koa, Lanaren eta Ekonomia Sozialaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko urriaren 20ko Ministroen Kontseiluaren Akordioa, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana onesten duena, Enpleguaren Legea onesten duen urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren 11.2 artikulua ezarritakoaren arabera. **2020-13342 xedapena - 110 or.**
 - **Lan egutegia.** – Ebazpena, 2020ko urriaren 28koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, 2021erako laneko jaiegunen zerrenda argitaratzen duena. **2020-13343 xedapena - 6 or.**

2020/11/04

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.**
 - **Neurri sozialak.** – 32/2020 Errege Lege-dekretua, azaroaren 3koa, langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko neurri sozial osagarriak onesten dituen. **2020-13490 xedapena - 12 or.**
 - **Premiazko neurriak.** – 33/2020 Errege Lege-dekretua, azaroaren 3koa, premiazko neurriak hartzen dituen estatuko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorereko erakundeei laguntzeko. **2020-13491 xedapena - 17 or.**

- **GORTE NAGUSIAK. – Alarma egoera. Luzapena.** – Ebazpena, 2020ko urriaren 29koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera luzatzeko baimen akordioa. Errege Dekretu horren bidez, alarma egoera deklaratu zen SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. **2020-13492 xedapena - 2 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.**
 - **Alarma egoera. Luzapena.** - 956/2020 Errege Dekretua, azaroaren 3koa, zeinaren bidez luzatzen den SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera. **2020-13494 xedapena - 5 or.**
 - **Jokoa.** - 958/2020 Errege Dekretua, azaroaren 3koa, joko jardueren komunikazio komertzialei buruzkoa. **2020-13495 xedapena - 29 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/11/02

- **LEHENDAKARITZA.** - 1/2020 LEGEA, urriaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzen duena. **4595 xedapena - 2 or.**
- **OSASUN SAILA.** - EBAZPENA, 2020ko urriaren 26koa, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariarena, zeinaren bidez herritar guztiengana zabaltzen baita gripearen aurkako txertaketaren estaldura 2020-2021 denboraldiko kanpainan. **4609 xedapena - 2 or.**

2020/11/04

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 8/2020 FORU DEKRETU-ARAUA, urriaren 13koa, COVID-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa. **4656 xedapena - 4 or.**

2020/11/06

- **LEHENDAKARITZA.** - 38/2020 DEKRETUA, azaroaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. **4748 xedapena - 4 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/11/06

• FORU ARAUAK.

- 20/2020 Foru Araua, urriaren 28koa, 13/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 13koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz. **3250 xedapena - 1 pág.**
- 21/2020 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolari buruz. **3252 xedapena - 8 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/02

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** - 2020ko ekainaren 10eko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, zeinen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen duen apirilaren 21eko 2/2020 Foru Dekretu Arauemailea berretsi egiten dan. **682 xedapena - 1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/11/04

- KONTSEILUAREN 2020/1632 (EB) GOMENDIOA, 2020ko urriaren 30ekoa, COVID-19aren pandemiari erantzuteko, Schengen eremuan zirkulazio librea murrizteko ikuspegi koordinatuari buruzkoa. **2 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO